

# Aretxa gazeta



Aretxabaleta • 1996ko apirilak 3 • 96.zka. •

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 7-2. EZK.  
ARETXABALETA

■ Aretxabaleta ABCn

■ Elkarriren aurkezpena

■ Bizikleta irteera Arabar Errioxara

■ Aste Santuaren erronka



Twingoak  
mundua  
bere  
kolorez  
jazten du.



twingo



Eta orain

finantzaketa harrigarria:

eskura ezazu Twingo bat egunean 650 pta.gatik



RENAULT

MECA





# Ikusi duzu Hyakutake kometa?

**Ander Ibañez**  
(Ikaslea)

Matikuara joan nintzen Hyakutake kometa ikus-tera. Lagun asko zegoen bertan. Katalajoekin ikusi nuen, borobil antzekoa zen eta buztana zuen.



**Dina Magallanes**  
(Langilea)

Jakin izan dut kometa bat pasatu dela baina nik ez dut ikusi. Ikustea gustatuko litzaidake baina ez dut ikusi.



**Nieves Arana**  
(Langilea)

Pentsatu nuen ikus-tera joatea baina azkenean luzaro gora begira egon beharko nintzela eta ez nintzen joan.



**Jose Angel San Migel**  
(Ikaslea)

Ez dut ikusi. Telebistan ikusi dut eta entzun dut Hyakutake kometa horren inguruan, baina ez dakit gauza haundirik.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



## ESKUTITZAK

*Irakurle agurgarriok:*

*Aste Santuko oporrak direla eta Aretxagazeta zuein etxean edo komertzioetan jasotzeko orduan desberdintasun batzuk igarriko dituzue aste honetan.*

*Bazkideei eguaztenean 3an banatuko zaizue eta denda eta tabernetan barriz zapatuan.*

*Bestalde jai egun hauek direla eta Aretxagazetak ere oporrak hartuko ditu eta hurrengo aleak apirilaren 18an atera beharrean 25ean urtengo du, eta hortik aurrera hamabostean behin betiko moduan.*

*Barkatu trabaren bat sortzen bazaizue eta ondo pasau oporrak.*

*Aretxagazeta*

**MAITE**  
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05  
ARETXABALETA

**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa  
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

**JOLAS**  
**LEKU**

Mitarte, 10  
Aretxabaleta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabé, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala, Euskaltegia, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**





## Hainbat egitasmo barri ditu Loramendi Euskara Elkarteak

Joan den martxoaren 28an urteko batzar orokorra egin zuen Loramendi Euskara Elkarteak. Mahaian eseri zirenak, Patxi Lazkano, zuzendaria, Jon Ander Loidi, Loramendiko arduraduna, Miren Iriondo, Berbari hitzarmeneko teknikaria, Jasone Garciaetxabe, ludotekako dinamizatzailea, Jasone Gorroño, diruzaina eta Jon Sarasua komunikabide taldekoa izan ziren.

Batzarrean gai asko jorratu ziren, horien artean, 1995. urteko balorazioa egin zen. Taldez-talde eginiko ekintzak zeintzuk izan ziren ere adierazi zen.

Aurtengo egitarauaren plangintza azaltzerakoan egitasmo barri ugari azaldu zituen Loramendi Elkarteak. Kultura batzordeak egingo duen esamolde okerren kanpaina, bailarako telebista proiektua, Berri-

zahar taldea iazko urtean behera etorri zena indartzea, kantu liburua barriz ateratzea, soziolinguistika ikastaroa, Aretxabaletako kontu zaharrak eta euskera batzea, e.a.

Zuzendaritza batzorde barriari oraindik guztiz finkatuta ez badago ere, Leire Gorostiza, kultura taldekoa; Josu Sarasua, sensibilizazio taldekoa; Mari Tere Etxabe, Tril emakume taldekoa; Josu Urkia, Aretxagazetakoa; Mirian Priego gazte taldekoa eta Roman Lezeta, Debagune taldekoa daude. Hauxe gain, Loramendiko hiru liberatuak daude, Jon Ander Loidi, Miren Iriondo eta Jasone Garciaetxabe. Lehendakari moduan Patxi Lazkanok jarraituko du eta diruzain lanak Jasone Gorroñoek egingo ditu. Berri-zahar eta haurren taldeko ordezkariak finkatu barik daude.

## Familia euskaldunetan egonaldiak

HABEK antolatzen duen "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" izeneko plangintzaren eskabidea egiteko epea zabalik dago.

Plangintzaren helburua euskaraz ikasten ari direnei euskara landu eta hobetzeko aukera ematea da; horretarako, gehienbat euskaldunetz osatutako herrietan bizi diren familia euskaldunen etxeetan egonaldiak eginez.

Etxean ikasleren bat hartu nahi duen familiak 4 kidekoa izan beharko du gutxienez, eta %70tik gorako euskaldun-kopurua duten udalerrietan bizi. Egonaldiak uztaila eta iraila bitartean egingo dira eta familia bakoitzak, gehienez ere, ikasle bat hartu ahal izango du hilabete bakoitzeko. Ikasleak logela bat izango du beretzat eta familiak ahaleginak egingo ditu ikasleak familiaren eguneroko bizimoduan parte har dezan. Familiak ordainetan 70.000 pezeta jasoko ditu etxean hartzen duen ikaslearengatik. HABEK ireki du dagoeneko programa honetan parte hartu nahi dutenentzako izena emateko epea. Familiek eskaera egiteko epea apirilaren 27a artekoa da. Eskabideak egun hori baino lehenago aurkeztu behar dira HABEko bulego nagusian (Vitoria-Gasteiz kalea, 3, Ondarraeta, Donostia).

### GARBITU S. KOOP

#### Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

### Artano Taberna

Herriko Plaza  
ARETXABALETA



### TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETA



# O.P.A.: autonomoak elkartuko dituen erakundea



Autonomo guztiak batu gura ditu O.P.A.k indarra izan dezaten

O.P.A. deitzen da autonomo guztiak batu eta euren eskubide eta interesak defenditzeko sortutako erakundea. 1990. urtean izan zuen bere sorrera eta Estatu mailakoa bada ere, probintzi eta herri mailan lan egiten hasi gura du.

Aretxabaletan 1995. urteko aza-

roan eman zen ezagutzera O.P.A. erakundea. Autonomo guzteei zuzendutako hitzaldi bat eman zen. Harrez gero herriko autonomoen taldetxo batek hor dihardu autonomoak elkartzeko eta batzeko lanean. Oraindik ez dute ezer berezirik egin baina taldetxo honen ustetan autono-

moak bere eskubideak aldarrikatzeko batu beharra dauka. Langile asko dira autonomo gisa lan egiten dutenak: dendistak, dendariak, tabernariak, taxistak, garraiolariak, e.a. Baina orain artean, bere kasa lan egin duten langile hauek ez dira negoziatorako, elkar lanerako eta borrokarako ohituta egon.

O.P.A.k honako hau aldarrikatzen du besteak beste: autonomoak baja hartutako lehenengo egunetik kobratzeko eskubidea izatea, moduluen legea abolitzea, pentsio egokiagoak jasotzea, instituzioetatik dirulaguntza eta bestelako laguntza jasotzea, langile autonomoen estatutua egitea, irabazitakoaren araberrara zergak ordaintzea, udaletxe eta herri mailan partehartze haundiagoa izatea, e.a.

Aretxabaletako O.P.A.ko kideekin harremanetan jarri gura izan ezkerok hauek dira telefonoak: Imanol: 79 05 83; Toni: 79 72 26; Feli: 79 21 24 eta Yolanda: 79 63 96.

## ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

## INDUSTRIALDEA MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño  
Medikua  
Zaraia  
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea  
Pabelloi F-O b  
☎ 79 06 82  
ARETXABALETA



Amaia-Berri, S.L.

## Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

## ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

## Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA



Berrikuntzak

MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA

Iparragire, 4 Tfnoa.79 21 24

## IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta



# Aste Santuan ere zinea izango da



## DOS TONTOS MUY TONTOS

Munduko bi gizon inozoetarikoei gertatzen zaien istorioa da hau. Lloyd limusina bateko gidaria da eta Mary izeneko bidaiari eder batek bere maleta uzten du kotxean. Baina Lloyd-ek ez dakiena maleta horretan emakumearen senarra askatzeko dirua dagoela da. Emakumeari maleta itzultzeko Harry-ri, beste lagun inozo bati, eskatzen dio laguntza. Hemendik aurrera bikote komiko honi gertatzen zaizkion abenturak ikus daitezke.

**Zuzendaria:** Peter Farrelly. **Aktoreak:** Jim Carrey, Jeff Daniels, Lauren Holly eta Karen Duffy.



## TWO MUCH

Art Dodge, arte galeria bat duen pintore kaxkar baten peripeziak kontatuko dizkigu Truebak. Espainiako pikaro maltzurren lez itzuli ezinak diren koadroak salduz bizi da. Betty, emakume ergela bezain ederra eta aberatsa, Art-ek maitemindu eta berarekin ezkontzeko eskatuko dio. Baina Artek Liz, Bettyren ahizpa, maite du. Beraz, korapilotik irtetzeko Artek anaia biki bat, Bart hain zuzen, asmatuko du gauzak gehiago nahastuz.

**Zuzendaria:** Andres Fernando Trueba. **Aktoreak:** Melanie Griffith, Antonio Banderas, Daryl Hannah, Danny Aiello.



## SHOW GIRLS

Nomi Malone Las Vegas hirira arrakasta eta fama bila datorren neska gaztea da. Striptease dantzari lana aurkitzen du Cheetah Club-ean eta bere soldata "Lap dance" sesioak eginez borobiltzen du. Modu honetan Las Vegas-ko "Show" haundienak ezagutzera heltzen da eta baita hauen jabeak diren gizon-emakumeak ere. Poliki-poliki sexua, biolentzia, dirua eta boterea batzen dituen mundu batean sartzen da Nomi, gero eta gorago heltzea garrantzitsua den mundu batean.

**Zuzendaria:** Paul Verhoeven. **Aktoreak:** Elizabeth Berkley, Kyle MacLachlan, Gina Gershon, Glenn Plummer, Robert Davi, Alan Rachins, Gina Ravera.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55




# Aretxabaleta ABCn

Joan zen hilaren 10ean, "El voto del miedo" titulua zeukan kronika bat argitaratu zuen Madrilgo ABC egunkariak, "Nacional" deitzen dioten sailean. Gure herriari buruz hitzegiten zen bertan: martxoaren 3ko hauteskunde egunean Aretxabaletan egon zen kazetariak, jaso zituen inpresinoak kontatzen zituen. Tartean Iñaki Pierrugues eta Lorenzo Fernández zinegotzien hitzak azaltzen ziren. Ordutik hona kalean ahorik-ahorik ibili da gai hau, eta zeresan handia sortu du atxabaltarren artean. Estatu guztian irakurri ahal izan zen testu hura biltzen saiatu gara ondorengo lerroetan.

Cristina López Schlichtin kazetariak sinatutakoa da kronika. Hasieran, Gipuzkoako herri baten argazkia agertzen da (ez da Aretxabaleta). Argazkiak, alantrezko hesi bat erakusten du lehenengo planuan, eta herria horren atzean ikusten da. Titulua, "El voto del miedo", argazkiaren gainean inprimatuta ageri da. Narrazioa Aretxabaletan hasten da, alboko argazkian ikusten den moduan. Aurrerago, beste pasarte hauek irakurri daitezke:

*Herri Batasunak irabazi behar zuen, betiko moduan, atzetik PNV eta sozialistak gertuan zituela, baina oraindik ez genekien ezer. Nolanahi ere, hauteskunderen gaineko elkarrizketa ez zen izan Urbaltz tabernan, jakina: Txakolinenean hartu genuen babesa, herriaren erdialdetik eta HBren feudotik kanpora, eta txikito batzuk hartu genituen. (...)*

*Bere seme-alabek euskaraz hitzegiten dute -dio kazetariak Lorenzo Fernandezi buruz- baina berak, ikasi ezinean dabilelako,*



San Sebastián se engalanó de sol el domingo pasado y las familias recorrieron el barrio del Antiguo haciendo tiempo para votar, cuando a Luis P., interventor del Partido Popular, alguien le sacó a pulso el calor del cuerpo. Apenas constituidas las mesas electorales de la calle Escolta Real, un interventor de HB, enfilándolo de frente, lo tachó de cabrón e hijo de puta mientras hacía ademán de llevarse la mano al sobaco, bajo la chaqueta. «Te voy a matar -fueron las palabras-. Ya veréis a partir de mañana». -¿Qué le habías hecho? -«Nada. No entiendo nada». Empezábamos bien la jornada electoral en el País Vasco. Un día largo, demasiado largo, donde el chantaje de HB a sus propios votantes y a los de los demás partidos se empeñó en manchar la democracia dolorosamente defendida. Enfrente, atándose los machos, y hasta jugándose la vida, hubo quien votó por el amor a un país libre

Aretxabaleta (Gulpúzcoa). 3 de marzo. 12 de la mañana. La cita era con los concejales del PSOE, Lorenzo Fernández e Iñaki Pierrugues y, en cierto modo, la escena se repitió. «No, ahí no», dijo Iñaki apertándose de la puerta del bar Urbaltz, -aquí lo mismo nos llaman "españoles" o "hijos de puta". También hacia sol en Aretxabaleta, un pueblo de 6000 habitantes e industria cerrajera donde

las viejas se apilaban en las colas del colegio electoral. «Siempre venimos en el peor momento» -farfullaba alguna, «claro, la gente viene después de misa». La ceremonia había sido en vasco, adornada por las impresionantes voces

masculinas del coro del pueblo. Iba a ganar Herri Batasuna, como siempre, seguida de cerca por el PNV y los socialistas, pero aún no lo sabíamos. En cualquier caso, la conversación sobre las

elecciones no fue en el bar Urbaltz, claro: nos refugiáramos en el «Kakoi», fuera del centro del pueblo y de los feudos de HB, y compartimos «bikitos» de vino.

Lorenzo Fernández, cordobés, emigrante desde el 69, (cuando voy a Córdoba me dicen vasco, cuando vuelvo aquí, cordobés-) anda por los 40 y dice que no tiene miedo, pero no es la primera vez que le pintan el coche -ni la fachada de la casa. Sus hijos

Honela hasten zen gure herriaren inguruan ABCn argitaratu zen kronika

*udaletzeko plenoak eta gobernu-batzordeak ezer ulertu barik "txupatzen" ditu. "Bazterrak ez nahastearren, gurago dut itzultzailerik ez eskatu. Eguneko gai ordena, idazkariari galdetuta jakiten dut, eta gero sabaira begiratzen dut". (...)*

*Aretxabaleta, Euskal Herriko beste hainbat herri bezala, ez da herri bat, bi dira. Bi taberna-ibilbide daude, bi kale gune, bi lagunarte. Demokratena eta Herri Batasunakoena, odolarenak. Borroka, ikusiezin gor eta mingotsa da, kanpotarrari pulstua izoztuta uzten diona. (...)*

*"Neska-mutikoak ikastolara joaten dira eta han azaltzen diete Euskadi zazpi probintzia direla, eta historia modu honetara edo beste honetara dela, eta eurei odola berotu egiten zaie" (Iñaki Pierruguesen hitzak dira). "Gero jendeak*

*gorrotatzen du-osatu zuen Lorenzok-. Arrasaten, hementxe ondoan, HBko neska batek izara bat ipini zuen fabrian, bere lankide sozialista ez ikusteko".*

*Mahai elektoraletan jende gehiegi dago. "HBren interbentoreak dira -dio Iñakik-. Mahai bakoitzeko bi bidaltzen dituzte, parrokia guztia etortzen ete zaien kontrolatzeko". Batzuek komisarioei begiratzen diete botua eman aurretik, eta saludo txiki bat egiten diete elkarri euskaraz, eta joan aurretik agurra "Abur, Josu". Kontsignak bete dituen beste bat gehiago.*

*Ondoren, "Cara de asco" dioen titulu txiki baten azpian, "Jarraiko kide aktiboa" ei den Jokin Igarituarekin egin zuela topo kontatzen du kazetariak, eta harekin egindako elkarrizketa jasotzen du. Hortik aurrera, Gipuzkoako beste herri batzuetara pasatzen du kontakizuna.*

**Oharra: Lorenzo Fernandezek martxoaren 18an egin zen gobernu-batzordean ABCn argitaratutako artikulu honek errealitatearekin zerikusirik ez duela azaldu zuen, eta bere desadostasuna erakutsi zuen.**



# Astroen munduak liluratuta

**Jesus Arregik fisika ikasketak egin dituen arren oso gustoko du astronomia. Karrera bukatu aurretik zeruan dauden astro desberdinek erakarrita mundu bitxi hau ikertzen hasi zen.**

**Afiziotzat dauka astronomia, berak esaten duen moduan zientziaren esparru bitxia da hau.**

**Ilargi-eklipsea eta Hyakutake kometa aitzakia hartuta hainbat bitxikeria kontatu digu Jesusek.**

## - Zein gauza aztertzen ditu astronomiak?

- Astronomiak zeruan ikusi daitezkeen astroak ikertzen ditu batez ere. Baina esparru desberdinak ditu, astroen higadura aztertzen duena esaterako, eguzki eta izarren mugimendua. Bestetik astrofisikak astroetan gertatzen diren prozesu fisikoak ikertzen ditu, izar batek argi egiteko izaten duen prozesua adibidez. Azkenik, kosmologiak unibertsoaren sorrera eta eboluzioa aztertzen du.

## - Zerura begiratzeko dugunean zein elementu desberdin ikusten ditugu?


- Begi utsez gauzez begiratu ezkeror izarrek ikusten ditugu, 2.500 inguru dira. Izarrez gain 5 planeta dira ikusi daitezkeenak, Artizarra, Saturno, Jupiter, Martitz eta zailagoa bada ere Merkurio ere bai. Artizarra esaterako, oso izar argitsu moduan ikusten da. Batzutan ilunkaran ikusten da eta goizaldera beste batzutan. Ilunkaran ikusten denean bera azaltzen da zeruan lehenengo.

## - Orientatzeko balio dute izarrek?

- Bai, baina gero eta gutxiago teknologia asko garatu da eta. Baina orain gutxi arte itsasontziek izarrek erabiltzen zituzten orientatzeko.

## - Izarrek ze distatziatarra daude?

- Izarren distantzia argi-urtertara neurtzen da. Adibidez, eguzkitik lurrera 8 argi-minutu daude. Honek esan gura du argiak 8 minutu behar dituela eguzkitik lurrera heltzeko eta argiak 300.000 Km/sg-tako abiadura du. Beste modu batean esanda, eguzkiak eztanda egingo balu, gu 8 minutu arte ez ginake konturatuko.



Hurrengo izarrik hurbilena 4 argi-urtertara dago. Argiak 4 urte behar ditu izar horretatik lurrera heltzeko. Honek esan gura du guk astroak orain urte mordo bat dela moduan ikusten ditugula.

## - Eta beste izarren baten inguruan ba ete dago bizitarik?

- Ezet esateko ez dago arrazoi teknikorik. Baietz esateko barriz, eguzkia moduko izarrek ustez nahiko direla uste da eta eguzki horiek izango dituzte planetak inguruan. Planeta horien artean lurra eguzkitik duen distantzia duenik egongo balitz baliteke bizitarik egotea. Badago

**“15 mila urte beharko dira ostera Hyakutake kometa ikusteko”**

egitarau zientifiko bat etengabe seinaleak bialtzen ari dena espazioko ingurune zabal batean norbaitek jaso ditzakeen esperantzarekin.

## - Azken egunotan berba asko egin da Hyakutake kometaren inguruan, baina zer dira kometak?

- Kometak Pluton planeta baino urrunago dauden elementu txikiak dira. Bihotza harkaitzekoa dute eta gainean hautsa eta izotza dute. Edur zikinezko bola batzuk modukoak dira. Eguzkia beste izarren baten ondotik pasatzen denean perturbazio batzuk gertatzen dira eta kometa batzuk eguzkiaren inguruan bueltaka gelditzen dira, Haley eta Hyakutake kometen moduan.

## - Nola aurkitzen dira kometak?

- Zaletu asko dago kometak aurkitzera dedikatzen dena, kometa-ehiztariak deitzen zaie. Teleskopioaz zerura begira egoten dira gauero-gauero eta ondo ondo miatzen dute dena. Gero ikusten dutena katalogoaz konparatzen dute eta zeozer berria ikusten badute abisua bialtzen dute.

## - Ostera be, noiz ikusteko aukera izango dugu Hyakutake eta Haley kometa?

- Apirilaren erdialdera ostera ikusiko da Hyakutake kometa baina hego emisferiotik. Gero beste 15 mila urte beharko dira ostera ikusteko. Haley kometa 86. urtean pasatu zen eta 76 urte barru pasatuko da osterara.

## - Apirilaren 3an, ilargi-eklipsea egon behar ei da.

- Bai. Apirilaren 3an hiltete egunean ilargi-eklipsea egongo da. Ilargia lurra egiten duen itzalpean sartuko da. Ilargia keizpetan dagoen artean kolore gorritzka moduan ikusiko da.





# Nola zaindu barruko landareak

Ia-ia mundu guztiak dauka landareren bat bere etxean. Barrukoak, zein kanpokoak izan daitezke, hala ere, bakoitzak baldintza egokiak eduki behar ditu.

Kanpoko landareek tenperatura eta hezetasun aldaketa handiak jasan behar izaten dituzte. Baina etxe barruan, normalean, 15°C-25°C arteko tenperatura eta hezetasun gutxi izaten da, horregatik landare tropikalak dira egokienak barrurako. Hauek tenperatura altua eta giro hezea behar dutenez, baldintza hauek betetzen saiatu behar da eta hau landareei ura botata lortzen da. Baina ezin dira denak berdin ureztatu.

Hosto leunak dauzkaten landareek ura airetik hartzen dute, beraz, spray baten bidez ura hostoetara bota behar zaie egunero edo bizpahiru aldiz astean. Lurra, ordea, nahiko lehorra egon behar da eta bi astez behin ureztatzea nahikoa da.

Ilea duten hostoei ezin zaie ura hostoetara bota, usteldu egiten baitira. Horregatik lurrera edo platilora bota behar da. Lurrera botatzen bazaie, lehenengo lorontziak azpian zulo txiki bat daukala egiaztatu behar da, bestela, ur gehiegi pila daiteke lurrean eta landareak ito egin daitezke. Sobratzen den ur guztia kendu egin behar zaie.

Bestalde, platilora botatzen bazaie, 15-20 minutuz itxoin eta gero, plateran geratzen den ura

**Joan den martxoaren 13an Jakoba Rekondok emaniko hitzaldian entzundakoa laburbilduz, hona hemen barruko landareak hobeto zaintzeko aholku batzuk.**



hobe da kentzea, denbora horretan landareek behar duten ura hartzen baitute.

Baina landare ikusgarriak edukitzeko lorontzian dagoen lurra urtero aldatu eta lur ona ipini behar zaie, edo bestela lurra ongarritu. Landare batek elikatzeko Nitrogenoa (N), Fosforoa (P) eta Potasioa (K) behar ditu. Ongarriak hiru konponente hauek dauzka eta onena likidoa da.

Lortu nahi denaren arabera nahasketa desberdina erabiltzen da. Berdetasuna lortzeko Nitrogeno kopurua besteena baino handiago izan behar denez, N-10, P-3, K-1 nahasketa izango litzateke onena. Loreak nahi baditugu ordea, N-4, P-9, K-11 proportzioa izango da aproposena, Fosforo eta Potasio gehiago behar baitute. Biak lortu nahi baditugu (hostoak zein loreak) hobe da bigarren ongaria aukeratzera.

Leku batzuetan satsa ongarrizat daukate, baina hau ez da egia. Satsak zubi lana egiten du landareak lurrean dagoen janaria hobeto har dezan, baina, bera bakarrik ez da abonua. Hala ere, ona da landareentzat lurra bizirik mantentzen baitu.

Aholku hauek betetzen baditugu landare ikusgarriak lortuko ditugu.

Euskaltegiko 8. mailako ikasleak

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industriaidea 1-0-4  
Tfnua: 791811  
Faxa: 792041

ARETXABALETA

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

**JOSU**  
**HARATEGIA**  
Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08





# AHT-ren inguruko hausnarketa (II)

**A**urreko ARETXAGAZETAN zintzilik utzi genuen gai honi helduko diogu berriz ere. Esan genuen *Abiadura Haundiko Trenak* kalte ekologiko haundia egingo diola gure lurraldeari, eta eraso hauetariko batzuk aipatu genituen, hala nola tunel eta harrobien eraikuntza eta trenbidearen barrera efektua.

## Lurren mugimendua:

Trenak, bost Euskal probintzietan (Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan, Lapudina eta Nafarroan) **65 milioi metro kubikotik gora** mugituko baititu, hauetatik 35 milioi Euskal Autonomi Elkartearen. Honen kalte ekologikoa begibistakoa da: Landaretza gutzia deuseztuko da, lurraren higadura (erosioa) izugarri emendatuko da, faunari ere kalte haundia egingo dio (gehienbat aurrez aipaturiko barrera efektuaren ondorioz), gure hidrologia ere kaltetua izango da (Euskal Herrian errekurtsio naturalik aberatsenetako bat lurpeko urek osatzen dutelarik) eta azkenik gure paisaiak ere inpakto galanta jasango du, Euskal Herriko altxor naturalistiko asko zeharkatzen baititu.


## Kutsadura:

Trenak gure herriko mendiei eta klimari eragingo dion kutsadura ere nabarmena izango da. Alde batetik **metal astun** ugari zabalduko ditu inguruan. Bestetik lehenkari (dinamita eta antzerakoak) ugari erabili beharko dira trenbidea eraikitzeko orduan (tuneletan, harrobi edo kanteratan, ...). Trenaren errefrigerazio sistemek jariatzen dituzten CFC sustantziak bestalde ozono geruzaren aurkakoak dira. Eta azkenik bere argi indar-kontsumoa esageratua da eta etorkizun hurbilean **energia nuklearraren beharra** sortaraziko digu.

## Konklusioa:

Aspaldi honetan makroproiektuez inguratzen hasiak gara, hala nola Maltzaga-Urbina Autopista, orain aipatzen ari garen *Abiadura Haundiko Trena*,... Progresoa eta Europarekiko hurbiltasuna ahotan harturik badabilta ere, gehienetan proiektu hauek ez **dute funtzionaltasunik**. Ez al da zentzudunagoa Maltzagatik Urbinaraino autopista bat egin beharrean gaur egun dauden bideak egokitzea? Zertarako egin ziren bestela duela gutxi herri guztietan barianteak? Bost urte barru autopista ez zaie gustatuko eta beste bide astronomikoren bat gaineratuko digute. Bestalde, nori okurritu zaio Deba Ibaian uholdeen aurkako obrak egiteko 155 milioi gastatzea? Inor gogoratzen al da azken aldiz gainez egin zueneko egunaz? Noski, gero birziklapena bultzatzeko dirurik ez da egongo... Era berean zertan uste duzue lagunduko diola aipatu dugun tren zoragarri honek gure bailararen progresuari? Oso osorik tunel baten bidez lurrazpitik zeharkatuko du eta...

Bestalde, proiektu guzti hauek **ekologiaren ikuspuntutik oso kaltegarriak** dira. *Abiadura Haundiko Trena*-ri dagokionean argi geratu da. Beste proiektu batzuei dagokionaz hurrengo ARETXAGAZETA batzuetan mintzatuko gara.

 Mikel Arroiabe

T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A



**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA




Zenbaki

## Aholkularitza

Basabe Industrialdea

**Aretxabaleta**

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



**LOGOPEDIA ZENTRUA**

**ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE



• Juanjo Perez •

# “Aretxabaletan jende asko dago Elkarriren planteamenduekin bat datorrena”

Gertutik ezagutzen du Elkarrri Juango Perez-ek. Elkarriren Tailer Nazionaleko partaidea izateaz gain, hiru urte daramatza taldean lanean. Apirilaren 18an, Jonan Fernandezekin batera, Aretxabaletara etorriko da herrian elkarrizketa eta bakearen alde zer egin daitekeen azaldu, eta atxabaltarrak Elkarriren tailerrean parte hartzera animatzera.



**- Aretxabaletan Elkarriren tailerra antolatzeke asmoa dago. Zein izango litzateke helburua?**

- Herri guztietan bizi dugun giroa kontutan izanik, funtsezkoa ikusten dugu egoera horren aurrean jarrera eraikitzaileagoak planteatzea. Beraz, herrietan egon daitezkeen gatazka edo injustizia egoeren aurrean planteamendu positiboak egitea litzateke tailerraren lana.

**- Garrantzitsua da herri batean egin daitekeen lana?**

- Gutxi arte gatazkak batzuei bakarrik eragiten ziela uste genuen, baina orain, gero eta nabarmenagoa da guztioi eragiten digula modu batean zein bestean. Horregatik, bakoitzaren inplikazioa garrantzitsuagoa da, elkarlanaren bidez gatazka norabide justu batetik bideratzea lortuko dugu eta. Herrietan elkarlana eta ikuspegi desberdinen arteko hurbilketa landu daitezke.

**- Zure ustez atxabaltarrok zelan ikusten dugu Elkarriren lana?**

- Aretxabaletan jende asko dago Elkarriren planteamenduekin bat datorrena. Elkarririk ekintzak

antolatu dituenen, atxabaltar askok parte hartu izan du eta gainera, herrian inongo publizitaterik egin barik. Irlandaren alde Donostian egin genuen manifestaziora, adibidez, atxabaltar asko hurbildu zen.

Komenigarria izango litzateke herrian talde bat eratu, eta hasieran talde horrek motor lana egitea. Aretxabaletak duen izaera kontuan izanik, herrian gauza politak eta emankorrak egin daitezkeela uste dut. Arrasatera begiratu baino ez dugu, hango tailerrak hartu duen lan dinamika oso positiboa da eta hori herrian nabaritzen hasi da.

**- Jendea tailerrean lan egiteko gertu egongo da?**

- Lan dinamika konkretu bat eta programa bat egin ezker, jendeak parte hartuko duela uste dut. Zer egin behar duen garbi ikusten ez badu, jendeak tailerrera hurbiltzeko zailtasun handiagoak izango ditu. Elkarririk herrietan erreferentzia puntu garrantzitsua izan dadin lortu nahi dugu, eta horregatik, lana egiteko

gertu egongo den jendea behar da.

**- Elkarririk iritzi desberdineko jendea ei dago.**

- Horrela da, baina gehienbat oso polarizatuta ez dagoen jendea gerturatu da Elkarrira. Zaila da, hasieran behintzat, barrikadaren alde bateko zein besteko mutur-muturrean daudenak hurbiltzea. Aretxabaletako erronka ere, tailerrean ikuspegi desberdineko jendea biltzea izango litzateke. Hori bai, Elkarriren filosofiari jarraituz ideia amankomun bat izanik: gatazka politikoa bizi dugula, gatazka hori elkarrizketa eta negoziazioaren bidez konpondu behar dela eta arazoa bideratzeko guztion parte hartzea oso garrantzitsua dela.

**- Gatazka egoera honek badu irtenbiderik?**

- Irtenbidea duela uste dugulako ari gara lanean, eta gustatuko litzateke lehenbailehen lortzea. Irtenbidea elkarrizketa eta negoziazioaren bidez etorriko da.

**- Batzuen ustez Elkarririk norabidea aldatu du.**

- Nire iritziak Elkarririk norabide koherentea eraman du, baina egoera konkretuen aurrean mezua egokituz. Positiboa zera da: kritikak alde desberdinetatik jasotzen ditugula.

**- Zu zeu, zer moduz Elkarririk?**

- Gustora. Herri honek bizi duen arazoa ulertzen lagundu dit. Elkarririk lanean ari garenok ez gara berdinak taldean sartu aurretik eta ondoren. Horrek ez du esan nahi ideologia galtzen dugunik, baina Elkarririk planteamendu zabalagoa eskaintzen du norberaren ideologia defendatu eta besteena ere ulertzeko.



# Aste Santua erronka berri baten aurrean

**Gizarteak jasandako aldaketak Aste Santuaren zentzuan ere eragina izan du. Gero eta fededun gutxiagok ospatzen du Aste Santua era erlijioso batean. Jendeak bost egun hauek kanpora joateko aukeratu ditu.**



1950. urte inguruan Prozesio Durana kaletik pasatzen.

**K**ristau egutegia jarraituz, Garizumaren ondoren, Aste Santua dator. Garai batean, egutegi erlijiosoak bizitzaren ardatza izaten zen; gaur egun baldintzatzen gaituen egutegi bakarria barriz jaiegunetakoa bihurtu da. Ez da berria beraz, baina bai gero eta nabarmanagoa, Aste Santuak bere kutsu erlijiosoak galtzen ari duela edo behintzat ospakizunak zeharo aldatu direla. Ospakizun erlijiosoak desagertuz joan dira azken urteetan eta gure gazteek ez dute orain urte asko ez direla garai honetan ohitura ziren aktibitateak ezagutzen. Aretxabaletan Euskal Herriko beste herri gehienetan bezalaxe garai honetan Dokea eta Txirikiletan asko jolasten zen, gaur egun aldiz joko hauek iadanik ahaztuak ditugu.

Nikaxi Antxiak zera gogorarazten zigun, *“Eguakotx Santu egunean dokean ibiltzen zan, domekan gizakumiak jolasten zuten eta gero guztiak antxoak jatera tabernara. Eguen Santuen ere dokean egiten zan”*. Nikaxik Garizuma guztia txirikiletan jolasten pasatzen zuen, bere adineko gehienak bezalaxe. Berarentzat, gaur egun desberdina da erabat, *“orduak guztia erlijioaren inguruan kokatzen zan, gaur barriz jendea kanpora irteten da”*.

## PROZESIOAK UGARI

Dunixe Zuazabeitiak ere beste modu bateko Aste Santua ezagutu du, *“ordukoa beste bizimodu bat zen. Kristautasunak esaten zuena betetzen zen. Aste Santua beste modu baten hartzen zen eta beste mentalitate bat*

*zegoen”*. Oraindik orain Dunixek garai hartako prozesioak gogoratzen ditu, *“prozesioa elizatik irteten eta lehenagoko tren estazioraino joaten zen gero bueltia emoteko. Ilunkaran kalbarixua eta misirimaixak egoten ziren”*.

Bernabe Makazagak ere antzeko ikuspegia dauka, *“lehen prozesioak ugari egiten ziren, Eguen eta Eguakotx Santuen auzoetako guztiak herrira jaisten ziren, ospakizun guztiak kalean egiten zirelako”*. Bernaben hitzetan orduko prozesioetan, *“danok elegante janzten ginan, trajea estrenatzeko eguna izaten zan, korbata eta guzti”*.

Bernabek urte haietako oroitzenak fresko mantentzen ditu oraindik, *“orduak Aste Santuetan dantzia ere kendu egiten zan, behin hauts eguna pasa eta gero ez zen dantzarik egoten. Bestela plazan dantzia domekero domekero egiten genuen”*.

## ELIZAK ERE OSPAKIZUNAK ALDATU

Urteen iraganarekin Elizak ere bere ospakizunak aldatu ditu. Azken urte hauetan besteak beste, Prozesioak antolatzeari utzi dio eta elizkizunak ere nolabait gaur egun bizi garen garaietara moldatuz joan dira. Don Bitoriano Aranburuk datozen egunetako eleiz ospakizunak azaltzen zizkigun, *“lehenengo elizkizunak oso luzeak izaten ziren, aberatsak bai,*



baina oso luzeak. Gaur egun barriz, kristauontzat hain garrantzitsua den pasko garai honetan zazpi irakurgai irakurri beharrean hiru irakurriko ditugu". Don Bitorianoentzat aberastasuna ez da galdu, bere hitzetan, "Pasko bigilia gauean egiten ditugun ospakizunak aspaldikoak baino aberasgarriagoak dira".

Kontuak kontu gaur egun bizi dugun kulturak, Aste Santua beste modu batera ikustera bultzatu gaitu. Kultura honek hain zuzen Aste Santua; jaiegun, oporraldi bezala

**“Benidorm, Salou eta Andaluziako kostaldea izan dira lekurik aukeratuenak. Londres, Paris, Bartzelona eta Madrilera ere joango da jendea”**



*Jendeak Aste Santua etxetik kanpo egun batzuk pasatzeko aprobetxatzen du*

ikustera eraman gaitu. Don Bitorianok aspaldiko kontuak gogoratzen zituen, "aspaldi parrokuak garai honetan kanpora joatea debekatzen zuen. Egoera goitik behera aldatu da. Nik ezin dut hori egin. Dena dela fededunei kanpora badoaz ere, Jesusen misterioa ospatzeko eskatuko nieke". Bitoriano Aranburuk bukatzeko argi utzi nahi izan zuen elizak azken urte hauetan Aste Santuetako ideia nagusia sendotu nahi izan duela eta, aldaketak egon diren arren, Elizak ez ditu ohiturak galdu.

**FEDEDUNEN ERRONKA BERRIA**

Dena dela, fededun direnak eta Aste Santua modu kristau batean bizi dutenak erronka berri baten aurrean aurkitzen dira. Eskualdeko Elizak

ahalegin ugari egin dituen arren, ez dirudi erantzuna egon denik, "urte batzutan elizkizun ospakizunak Urbiara eramatea erabaki genuen, baina jendea ez zen joaten". Garai honetako elizkizunak gero eta partehartze murriztagoa dute gaur egun, eta gero eta jende gehiagok jaiegun hauek etxetik kanpo pasatzen ditu. Fededunen erronka beraz ez da erraza, kristau taldearentzat hain garrantzitsu diren egun hauetan, beste ohitura batzuk nagusitzen hasi dira.

Kristau taldeak, dena dela, Aste Santua ospatzeko eraren aldaketa, positibotzat jotzen du neurri handi batean, beraientzat ulergarriago bihurtu da egun hauetako benetako zentzua.

Fededun ez direnak ere, Aste Santu garaia dela konturatzeo aukera

izango dute, eta nahiz eta kalean Aste Santu girorik ez den nabarituko, telebistan egun hauetan urtero ematen dituzten luzemetrai eta ospakizun erlijiosoak ikusteko aukera izango dute. Kanpora doana eta fededun denak ere aukera hau aprobetxa dezake. ETBn Arantzazutik zuzenean Eleiz ospakizunak ikusteko aukera emango digute, horrez gain pelikulak ere, garai honetan hain aproposak diren "Jesus", "Barrabas" eta "Hamar mandamentuak" ikusteko aukera izango dugu. Behar bada laster Aste Santuan gaudela telebistaz jakingo dugu. Dena dela ez dago inori errua botatzerik, gizartearen aldaketa sakonaren ondorio zuzena baita gaur egungo eta aspaldiko Aste Santuaren artean dagoen desberdintasuna: Gizartearen aldaketa sakon hau da erantzule.

**KULTURA BERRIA**

Kultura berria etxetik kanpora alde egitea bihurtu da. Aurtengo Aste Santuan ere jende askok alde egingo du herritik eta badirudi inoiz baino jende gutxiago geratuko dela herria zaintzen. Guk Arrasaten dauden bidaiaria agentzietara jo genuen, gehienetan aurten egondako mugimendu handiaren berri eman zigutelarik. Aste Santuetako bost jaiegunak pasatzeko jendeak eguzkia bilatu nahi izan du, Mediterraneoan; Salou, Benidorm eta Andaluziako kostaldea izan dira lekurik aukeratuenak. Beste asko ere hiriburu garrantzitsuak ezagutzeko asmoz abiatuko da Aste Santuan, besteak beste; Londres, Paris, Bartzelona eta Madril izan dira aukeratuenak.

Aste Santuaz gain Pasko astea ere jai dutenak Kanariar irlak, Mallorca eta Andaluzia aukeratu dute. Karibera joatera animatu denik ere bada. Argi dago beraz jendeak egun hauetan etxetik alde egingo duela.

Agentzietan era guztietako jendearen berri eman ziguten, familia osoak, jende gaztea, ikasleak eta baita jubilatuen ere. Nahiz eta hauek beste urtaro batzuk aproposagoak izaten dituzten.

*Gorka Etxabe*



## UDAk ez zuen Tolosatik emaitza onik ekarri

Pasatu den domekan UDak ezin izan zuen Tolosatik ezer onik ekarri. Tolosak 4 eta 0-ko garaipena lortu zuen Atxabaltarren aurka. Partidua alde zuzenetik oso garrantzitsua zen bi taldeentzat, helburua hirugarren dibi-siora pasatzea dute eta biek. Tolosarrak gogor zelairatu ziren hasierahasieratik eta garaipena lortu ere bai. Porrot honekin Bittor Mugikak zuzentzen duen taldeak aukera ederra galdu zuen bigarren postuan ezartzeko. Baina oraindik UDak badu gora igotzeko aukerarik lehenengo eta bigarren postuetatik lau puntutara dago eta. Tolosak eta Zarautzek 54-na puntu dituzte, 52 punturekin Mutriku dago eta laugarren postuan 50 punturekin UDA. Dena dala, datorren domekan



Laugarren postuan dago UDA

Ibarran UDak eta azkenbigarren postuan dagoen Baskoniak neurtuko dituzte indarrak.

### Lehenengo erregionala

Lehenengo erregionaleko UDA taldeak 1 eta 3-ko garaipena lortu zuen Allerru-ren aurka. Garaipen honekin Atxabaltarrek 11. postuan bukatu dute aurtengo liga.

## Mikel Roldan Bretainiako proba internazionalen korritzeko aukeratua

Martxoak 30ean Fagor taldeko lehen eta bigarren mailako jubenilek proba berri bat izan zuten Antzuolan. 265 txirindularik hartu zuten parte. Lasterketako garailea "Ikasi" taldeko Albisu izan zen. Proba honetan Fagor taldeko Mikel Roldan 6. postuan sartu zen. Mikel bere taldeko txirindularirik onena izan zen Antzuolan. Ondo ari da Fagor taldeko txirindularia baina honez gain Gipuzkoako federazioak Bretainian datorren apirilaren 8an korrituko den proba internazionalen parte hartzeko aukeratu du. Zortea opa diogu.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

**Dorleta**  
**Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
Aretxabaleta

**ANGELINES**



**Autozerbitzua**

Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

**KIXKOR**  
**TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60  
Aretxabaleta



**Lurrindegia**  
**Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**TXIMAK**  
ileapaindegi  
mistoa

•••••  
Herriko Plaza, 5 - behea  
Tfnoa: 79 83 64  
ARETXABALETAK

**MIKELOS**

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETAK

BEIRALAN



**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

**DOIKALSE**

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44



**AITZIBER**  
**Umeak**

Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

**Martín**

RELOJERIA - BIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72





Bastidatik Bernedora bitarteko ibilbidea egingo da apirilaren 11tik 14 artean

## Arabar Errioxara bizikleta irteera

“Non eta mугan gazteok bizikletan” lemapean Loramendi Elkarteko Soloik-solo gazte taldeak bizikleta irteera antolatu du Arabar Errioxara. Irteeraren helburua gure bailarako eta Arabar Errioxako gazteen arteko harremanak sortzea eta euskeraren inguruko beste errealitate bat ezagutzea da.

Egitarauan hainbat ibilbide sartzen dira, hasi La Bastidatik eta Bernedora heldu arte. Apirilaren 11an, eguena, Aretxabaletatik goizeko 8,30ean irtengo da autobusa Bastidararaino. Bertan bizikletari heldu eta La Puebla de Labarcara joango dira. Afaria La Pueblako ikastolan izango da eta afal osterako erromeria antolatuta dago.

Bigarren egunean La Pueblatik Oionera bitarteko ibilbidea egingo da

bizikletan. Oiongo ikastolan afalduko da eta ondoren Deba Garaiko bertsolari gazteak izango dira.

Hirugarren eguneko ibilaldia Oiondik Bernedoraino bitartekoa da. Bernedoko “Sarrea” Euskal Udalekuan afalduko da eta ostean “juerga” egongo da. Apirilaren 14an etxerako buelta egingo da arratsalde parterako.

15 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago irteera eta prezioa 6.000 pezetakoa da. Apuntatzeko azken eguna apirilaren 2a da eta Loramendiko lokalera jo behar da.

Apirilaren 3an xehetasun guztiak argitzeko bilera bat egingo da Loramendiko lokalean arratsaldeko 6retan. Informazio gehiago gura izan ezkerre deitu 77 09 70 telefonora.

## Hiru haundiak hiru egunetan


Aizkorri, Anboto eta Gorbea, hiru haundiak 3 egunetan egiteko irteera antolatu du AED, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak Debagune mailan. Debagune bailarako euskera taldeek osatzen dute. Irteera apirilaren 11, 12 eta 13an egingo da eta Lea eta Aperriri omenaldia egingo zaie. Prezioa, bazkidentzat 3.500 pezeta da eta gainontze-koentzat 3.800 pezeta. Izena emateko epea apirilaren 6rarte dago zabalik. Informazio gehiagorako Loramendi euskera elkartera deitu 77 09 70 telefonora.

## Zaraia M. T.ak Sierra Handiara irteera

Zaraia M.T.ak Sierra Handiara egingo du irteera apirilaren 4tik 8ra bitartean. Kanpinean izango da egonaldia eta bertako mendietan trabesia desberdinak egingo dituzte.

## Murrukixo Katalunya aldeko pirineoetara

Murrukixo Mendi Elkartek Katalunyako Pirineoetara irteera antolatu du apirilaren 4tik 8ra bitartean. Ventosa eta Calvell aterpetxean egonaldia. Igoko diren mendiak: Besiberri (3.014 m), Montardo (2.830 m), Punta Alta (3.016 m) eta Contrai (2.892 m) dira.



### ARGİ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia  
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

### PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA





## Patinaje ikastaroa emango da Aretxabaletako kiroltxean



Deba Garaiko euskera eta kirol zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu. Hoiien artean, **uretako soroslea, patinajea, fitness-a, elbarrituen kirolak** eta **kirolaren elikadura** daude. Hasierako patinaje ikastaroa Aretxabaletan emango da, apirilaren 20, 27 eta maiatzaren 4 eta 11n. Irakaslea, Josean Iñarra izango da eta Kirol etxean emango da goizeko 9retatik 11etara bitartean.

Ikastaro hauen inguruko informazio gehiago edo eta izenematea Aretxabaletako kiroldegian edo eta 79 64 61 telefonoan egin daiteke.

## • Oihana Mata •

### “Mutilen aurka jokatzek ez nau beldurtzen”

Pelotari trebea dugu Oihana Mata neska gaztea. Orain dela bi urte hasi zen pelotan jokatzeko eta ordutik mutilen aurka jokatu izan ditu partiduak. 11 urte besterik ez ditu eta Aretxabaletan pelotan jokatzeko duen neska bakarra den arren mutilen aurka jokatzek ez dio beldurrik ematen.

Frontoian pelotan aritzeko ohitura zuen Oihanak eta behin Jose San Migel etorri zitzaion pelotan jokatu gura zuen esanez. Horrela hasi zen pelotari gazte hau Jose San Migelekin pelotan entrenatzen.

Txiki-txikitatik gustatu izan zaio pelotan aritzea. Hasiera baten frontoira joan eta bere kasa aritzen zen jolasten. Orain astelehen eta asteazkenetan izaten ditu entrenamentuak, eta beste batzuen aurka partiduak jokatuz entrenatzen du normalean.

Oihanak adierazi digunez oso neska gutxi jolasten du pelotan. Berak inoiz ez du neska baten



aurka jokatu baina ezagutzen du bera baino gazteagoa den beste neska bat, baina elgetarra da hau.

Mutilen aurka pelotan indarrak neurtu behar izateak ez dio inungoko bildurrik ematen. Izan be, partidu guztiak mutilen aurka jokatzera ohitu da eta hoietako asko irabazi ere, irabazi ditu.

Jose San Migel, Oihanaren entrenatzailea bera ere harrirituta dago neska honek pelotan

jokatzeko duen abileziaz.

*“Mutilei ere partiduak samur irabazten dizkie, indar haundia du eta oso ausarta da.*

*Partiduetan egoten diren ikusleak ere harrirituta uzten ditu”.*

Bere jokatzeko moduak ez du sekreturik, baina partiduak zelan irabazten dituen galdetu diogunean haxe adierazi digu: *“ez dut ezer berezirik egiten atzera-atzera botatzen dut pelota eta gero horma bikoak egiten ditut”.* Horixe da bere sekretua.

Eskolan beste kirol batzuk ere egiten ditu, baina pelota da gehien gustatzen zaiona, *“pelota partiduetan gustora aritzen naiz. Uberako kopa jokatzeko ari gara momentu honetan eta dagoeneko 2 partidu jokatu ditugu. Hoietatik bat irabazi eta bestea galdu dut”.*

Garbi dago pelota gustoko duela neska honek, baina ez jokatzeko bakarrik, telebistan ere sarri ikusten ditu pelota partiduak eta esan digunez Beloki da gehien gustatzen zaion pelotaria.





**“Maitagarriak eta iratxoak ilargirako bidean” izenburua du Garazi Oihanguren idatzi duen ipuinak. Bertan bere amonak kontatutako istorio bitxi eta polita kontatzen du Garazik, orain milioika urte iratxo eta maitagarri batzuei gertatutakoa hain zuzen ere. Loramendi literatur lehiaketan 3. eta 4. mailako ipuinen atalean lehenengo saria eskuratu zuen.**



**Garazi Oihanguren**  
(10 urte)  
1.go saria

## Maitagarriak eta iratxoak ilargirako bidean

**N**ahiz eta guk ez ezagutu orain dela milioika urte maitagarriak eta iratxoak bizi omen ziren. Istoriotxo hau nire amonak kontatutakoa da, nire amonari berriz bere amonak kontatu zion, eta nik neuk ere ilobaren bat edukitzen badut berari kontatuko diot. Baina utzi dezagun kontu hori alde batera eta segi dezagun gurearekin. Esaten ari nintzen bezala nire amonak kontatutako istoriotxo da hau, eta oraindik ilobarik ez dudanez zuei kontatuko dizuet.

Maitagarriak eta iratxoak bizi ziren herri batean, bazeuden hiru iratxo ausart eta bi maitagarri atsegin. Maitagarrien izenak Eder eta Bihurri ziren, biak ilehoriak izateaz gain zineko artistek jazten dituzten jantzien antzerakoak erabiltzen zituzten. Zapatilatxoak ere barregarriak zituzten, bolatxo handi bat eta guzti. Iratxoak berriz hirurak antzerakoak ziren itxuraz, maitagarriei beraiei ere kostatzen zitzairen bereiztea. Sudur gorriak belarri luzezkak eta hankak motzak zituzten. Euren izenak Pinteros, Pantxito eta Arkimedes ziren.

Zuek uste duzue ilargira lehenengo aldiz orain dela urte gutxi joan zirela lurreko gizon-emakumeak, ba... hori ez da horrela, eurak baino lehenago iratxo eta maitagarri kuadrilatxo hau joan zelako.

Zergaitik uste duzue erabaki zutela ilargirantz abiatzea?

Ba... gauean konturatzen ziren hilean behin txupa-txups tankerako borobil handi bat argitxoz

inguraturik, zero ilunean agertzen zitzaie. Jakinmina sorturik hura zer zen ikustera joatea pentsatu zuten, beraz, espaziuntzi bat eraikitzen hasi ziren. Horretarako txorien kabi baten bila joan ziren nahiz eta lortzeko komeriak izan. Ondoren josteko orratz bat eskuratu zuten, jarraian arrano luma batzuk etabar... Dena ondo kokatu ondoren ZIZTA!!! entzun zen, badakizute zer izan zen ezta? bai, bazihoazen ilargirako bidean, bost laguntxoak emozionaturik kantari zihoazen.

Urten eta ordu batzutara baloi formako borobil bat ikusi zuten, ilargia zela pentsaturik hurbildu egin ziren, han bero handia egiten zuen, normala! eguzkitik gertuen dagoen planeta baitzen. Harrituta gelditu ziren, badakizue zergaitik? ba... inoiz ez zutelako ikusi urik gabeko planetarik. Bihurrik jakin minez galdetu zuen:

- Zer dira hor ikusten diren zulo txiki hoiek?
- Ez dakigu- erantzun zuten besteek.

Iratxoetariko batek, Pantxitok, argienak, esan zuen:

- Hau ez da ilargia, ilargia kraterrez beteta bait dago, konfunditu egingo ginen segurutik. Ea ba! itzul gaitezen berriz gure espaziuntzira. Esan bezala itzuli ziren espaziuntzira eta euren bidea jarraitu zuten eta handik beste ordu batzutara beste borragoma borobil bat ikusi zuten, eguzki sisteman begiratu eta ikusi zuten aurrean utziki zuten planeta haren izena Merkurio zela eta oraingoa Artizarra zela. Baina ez zuten euren bidea jarraitu, erabaki zuten ikusten zituzten



borobil guztietan geldialditxo bat egitea. Horrela Artizarrari begiradatxo bat egitera joan ziren eta bertan ikusitako guztia egunerokoan apuntatu zuten eta hauxe idatzi zuten:

“Eguzki sistemako bigarren planeta da. Inguruan hodei txuri baten antzeko zerbait du, eta honek eragiten dio planetarik argitsuena izatea. Badirudi ere planeta beroena dela, batzuetan bere hotz-beroa 500 gradutaraino heltzen baita”.

Ondoren euren bidea egiten jarraitu zuten eta hirugarrenera ez ziren hurbildu euren planeta zelako, LURRA hain zuzen ere. Beraz, laugarren planetara heldu ziren eta planeta haren izena MARTITZ zen. Bertan animalia bitxi batzuk ikusten zituzten, altuak, buru handiak eta gorputzez argalak, begiak aterata baina maitagarriak nahiz eta itxuraz arraroak izan. Ikaratuta irten ziren Martitzetik.

Berriz ere bola bat ikusi zuten, eguzki sisteman begiratu eta JUPITER zela konturatu ziren. Nola planeta bat zen, hurbildu egin ziren. Jupiter planeta oso zaratatsua zen, mamuak ateratzen duten zaratagaitik hain zuzen ere. Oraingoan harrিতා gelditu ziren horrelako planeta handia eta inor ez bizi. Baina Arkimedesez arrazoitu zuten:

- Nola biziko da ba inor dagoen hotzarekin?

Handik urrundu ziren eta espaziuntziruntz joan ziren euren bidea jarraitzeko.

Dagoeneko aspertuta zeuden hurrengo planeta noiz helduko zai. Aspertuta egon arren pozik zihoazen gure laguntxoak misterio hori argitzera. Bapatean eratzun antzeko uztai handi bat ikusi zuten planeta baten inguruan. Orduan denek batera esan zuten:

- “Hori SATURNO da”.

Eraztunarengaitik ezagutu zuten eta euren bidea jarraitu zuten bazekitelako ze planeta zen. Hurrengo planeta segituan heldu zen. Ikusi zuten bost satelite eta Saturnok bezala eratzun bat

zeukana inguruan. Oraingoan ere ez ziren bisitatzen joan ikusi zezaketelako kanpotik nolakoa zen. Bidaiarekin jarraitu zuten eta handik denbora apur batera beste borobil bat ikusi zuten. Hurbildu ziren ikustera zer zen, inguratu zirenean bi satelite ikusi zituzten, eguzki sisteman begiratu eta TRITON eta NEREIDA zirela ikusi zuten. Harriturik galdetu zuen Bihurrik:

- Zer dira sateliteak?

Pantxitok erantzun zion:

- Planeta baten inguruan jira biraka dabilen gorputza.

- Gorputz bat al da?

- Ez maitagarritxo! esateko modu bat da bakarrik. Handik aurrera erabaki zuten planeta guztiak ez bisitatzea bestela euren lagunak faltan botako zituzten eta gainera bidaia asko luzatzen hasia zen. Eguzki sistemako bederatzigarren planetara heldu zirenean, orduan bai bisitatu zutela planeta! azkena zen eta pena merezi zuen. Urreratu ziren eta nola eguzkitik oso urruti zegoen ez zuten piperrik ere ikusten. Beraz, ezin izan zuten ezer ikusi.

Pozik jarri ziren behingoz ilargia satelitea aurkituko zutelako. Baina espaziuntzian orduak igaro zituzten aspertu arte. Ez zekiten non zeuden ere. Atsekabeturik zeuden horrelako bidaia luzea egin eta ez zuten ilargiaren arraztorik ere lortu. Beraz, euren planetara itzultzea erabaki zuten. Berritua ere atzera bidaia osoa egin zuten eta LURRERA heldu zirenean han nun aurkitu zuten ilargia bera lurraren satelite moduan. Denak pozik eta kantari pasatu zuten egun osoa ilargian.

Euren herrira itzuli zirenean bosten artean teleskopio bat eraiki zuten, herrian oraindik teleskopio hitza ez zen ezagutzen eta “ilargia ikuslea” deitzen zioten. Handik aurrera gauero begiratzen zioten ilargiari. Hau ala bazan edo ez bazan sar dadila espaziuntzian eta atera dadila ilargian.

## EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...  
Enpresadako promozio bideoak.  
Eskola eta Elkartendako  
promozioak eta ekintza bereziak.  
Etxeetan grabatutako bideoen  
muntaiak.  
Otalora 15 • ARETXABALETA •  
Tfnoa: 79 78 37

## TXAKOLI

**a** - Pintxoak  
**b** - Kazuelak  
**e** - Pulpo espezialitate  
**r**  
**n**  
**a**  
Andra Mari Auzunea  
Tfnoa: 79 02 25  
ARETXABALETA

## VALDEZATE Taberna

Bizkaia, 5 / ☎ 79 20 05  
ARETXABALETA

## BASABE

Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84  
ARETXABALETA





Argazkikoak: Goian ezkerretik eskumara: **Ignacio Arenaza, Pascual Arenaza, Elena Arenaza**. Behean ezkerretik eskumara: **Isidoro Arenaza, Marcelina Pagaldai, Benita Arenaza, Pedro Migel Arenaza, Felix Arenaza**.



Landeta baserrikoek erlazio haundia matendu dute Deba ibaiarekin. Errekak ondo-ondotik zeharkatzen du lautada-lautadan dagoen baserria hau, eta gogoeta on eta txarrak ekartzen dizkie baserrikoiei. Uholdeek ondo markatuta utzi dute behin eta berriz baserria. Hiru uholde haundi ezagutzen dira. “San Pauloko urek” (360 urte inguru) Bolibartik Debara bitartean 16 bat errota eraman zituen uholde gogorra. Ostean hemen ezagutzen direnik haundienak “Trinidadekoak” eta “San Agustineko” uholdeak dira. Azken honetan urak 1,60 metroko altuera hartu zuen Landetako sukaldean. Abuztuaren 28 baten izan zen hau. Migel Arenazak, Landeta baserrikoak ondo gogoratzen du egun hau. Oilo eta untxi guztiak hil zitzaizkien, behi eta txerriak barriz kamarara igo zituztelako salbatu ei ziren.

Erreka sarri zeharkatu behar izaten zuten baserrikoek, errekaaren bestealdean uzta ereiten zen eta. Horretarako pasara bat jartzen zuten errekaaren alde batetik bestera. Hau apurtzen zenean aldiko-aldiko baserriko alde batekoek ala besteak jartzen zuten pasara. (Landetak bi etxebizitza izan ditu beti).

Baina orain 30 urte erreka garbi-garbi egoten zen eta igeri, erropak garbitu, ura edan eta arrantzan egin zitekeen bertan. Oraindik ere, etxean dituzte arrantzarako erabiltzen zituzten tresnak, erreungie, botrinaoa, esparbela, tresmailue, benaka, e.a.

Errekarekin erlazio haundia izateaz gain, baserriaren kokapenak ere eman du zeresanik historian zehar. Hona hemen hoietako batzuk:

★ Carlista gerratean Landetako zubian lehenengo emakume espia fusilatua izan zen, Santa Kurtz apaizaren denboran.

★ Mende hasieran, trenarentzako zubia egin zen Landeta baserriaren aldemenean. Gero ostera, proiektua aldatu eta marianistak zeuden aldean eraiki zen. Oraindik ere, lehenengo zubi horren aztarnak hantxe diraute. Orain artean errekak estaltzen bazituen ere, Errotabarriko presa apurtu zenean ura jeitsi egin zen eta geroztik bistan dira zubiaren aztarnak.

★ Apotzarako bidea eta Arkarazoko burdi bidea Landeta ondotik pasatzen ziren garai batean. Landeta oinetakoak aldatzeko lekua izaten zen.

★ Aretxabaletako kuartela egin aurretik Arrasate eta Eskoriatzan zegoen kuartela eta bertako guardia zibilak Landetan elkartzen ziren euren dokumentuak firmatzeko.

Garai bateko kontuak esango du batek baino gehiagok. Gure herriaren historia eta iragana gogoratuaz egiten dugun tartetxoa da honako hau. Landeta baserria bera ere historia bihurtuko da egunen batean eta.



# Benetan ilun



M.J. Aretxaga

Halaxe geratuko da gaua apirilaren 3an. Izarrak beti bezala hor egongo dira baina beraiekin batera egoten den ilargiak jai hartuko du gau horretan. **Ilargi-eklipsea** izango da.

Ilargiak gizaki eta animalietan eragin handia izaten du eta eklipsea dela eta akaso horregatik egongo dira behiak zoraturata Inglaterran. Gai hau dela eta ez dela ia egunero ikusten dugu **Jon Zuazabeitia** EHNEko partaidea telebistan edo egunkarietan esplikazioak eman eta eman, aber ondio berak ere behiak bezala erdi zoraturata bukatu behar duen.

Komunikabideak direla eta esan behar da, **Joseba Lopez de Armentia** dela Aretxabaletan Egin egunkariko korrespontsal berria. Badakizue beraz norengana joan behar duzuen zerbait Eginera bidali nahi baduzue.

Egunkarien mundu honetan beste atxabaltar bat ikusteko aukera ere izan dugu. Egunkariako "Barkatu ama" deritzon gehigarrian agertu da **Iurgi Etxebarria**, Nazioarteko Antzerki eguna zela eta Kukubiltxo taldeari egindako erreportai batetan.

Urrunagotik heltzen zaigu hurrengo berria, **Kangchenjunga espedizioak** iritsi dira dagoeneko kanpo basera. Bidean uste baino edur gehiago aurkitu dutela eta nekatuta iritsi dira. Dagoeneko kanpo basean prestatzeko lanak hasiak dituzte.

Beste atxabaltar kirolari batek, **Fran Miguel** xake jokalaria, txundituta utzi gaitu guztiok. Donostiako Nazioarteko Xake Openean nazioarteko xake maixu bati irabazi dio, J. De la Villari hain zuzen ere. Zorionak berari.

**Mikel Roldani** ere zorionak Gipuzkoako ordezkari gisa, Britainian ospatuko den proban parte hartzeko hautatua izan delako.

Opor giroa nabaritzen da eta herria dexente uztuko da egun hauetan, geratzen zarienok badakituzue, ondo zaindu herria.

Bueno eta ni banoa, presaka gainera, oporretan joateko oraindik bikini berria erosteko daukat eta.

Ondo pasau!!!

## ARETXAZOKA

- Valdezate taberna inguruan giltza batzuk galdu dira. Bizkaiko Foru Aldundia dioen narrazio giltzatak. Deitu 79 01 05 telefonora.

- Edurra egin zuen egunetan urrezko eraztun bat galdu zen. Juanjo izena jartzen du. Norbaitek topatu badu deitu 79 04 96 telefonora eta Carigatik galdetu.

### LANA

- Emakume euskalduna eskaintzen da ordu batzuk lan egiteko.

Tfnoa: 79 43 63

- Euskeraz, ingelesez, gaztelaz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira.

Tfnoa: 79 47 54.

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta ordu batzutarako lanak egingo nituzke.

Tfnoa: 77 02 13.

### ETXEBIZITZA

- 82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago.

Telefonoa: 79 01 17

- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan.

Telefonoa: 79 05 28.

- Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espilodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremantarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.


**Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, e.a.) dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.**






Jose Luis Errasti

“Gregorianoa espirituala da eta ez da batere matematikoa”



Bideo bat grabatu ondoren, Gregoriano korua Estatu Batuetako ekialdean gira bat egiten ari da bertako Markus Production enpresak hala eskatuta. Jose Luis Errasti taldeko partaidea da eta berarekin izan ginen Ameriketara aldera joan aurretik.

- Noiztik zabilta Aretxabaletako abesbatzan? 1979. urtetik.
Eta gregoriano mailan? 1981. urtean edo. Nik eta Angel Barandiaranek ezagutzen genuen zeozer gregorianoa. Poliki-poliki gustoa hartu genion eta ikasten hasi ginen.
Zer du berezia gregorianoak? Gregorianoa latinez abesten da. Espirituala da eta ez da matematikoa. Norberari gustatu egin behar zaio, baina askotan denborarekin gustatzera heltzen da.
Zer gustatzen zaizu gregorianoatik? Espiritualitatea. Latin ulertzen dudanez askoz ere barrurago sartzen zait.
Zer esaten da gregoriano abesietan? Dena otoitza da. Norberaren barrura sartzea, isolamendua, erlajazioa, e.a. lantzen da.
Estatu Batuetara joateko gogukin? Bai, baina bildurra ere galanta dut, hegazkinean ibiltzea ez zait larregi gustatzen eta.
Zer egingo duzue Estatu Batuetan? Egunero-egunero emango ditugu kontzertuak, beti herri desberdinetan. Bi egun jai izango ditugu, biak Philadelphian.
Amerikarrei horrenbeste gustatzen zaie gregorianoa? Bai, ez dute ezagutzen eta zeozer berezia da eurentzat.
Eztarria zaintzeko sekreturik? Eztarria berotan eduki behar da. Estatu Batuetan bufanda bat emango digute eztarria estalita izateko.
Abesten ari zarenean inoiz ez zaizu barregurerik edo eztulirik eforri? Zaila da, abesterakoan kontzentratuta egoten zara eta, baina gertatu daiteke eta gregorianoan dena hondatuko luke.
Hurrengo gira noiz eta nora? Azaroa eta abendua bitartean beste gira bat egingo dugu Estatu Batuetako mendebaldera. Bisitatuko ditugun herriak, San Diego, Los Angeles, San Francisco, Sacramento, Eugene, Portland, Seattle, Miami eta Tampa izango dira.
Urtikua baserrikoa zaitugu, baserria ala kalea duzu gurago bizitzeko? Baserria.
Zer du ona baserriak eta zer txarra? Ona, baserriak ematen duen libertatea. Txarra, distantzia, eta beti kotxea behar izatea.



Beheko laukian, Aretxabaletan azpian dauden berbak zelan esaten diren aurkitu beharko duzu:

- 1.- OINUTSIK - O... 4.- KORRIKA- A...
2.- BERAENDAKO-E... 5.- ERORI - J...
3.- ERAZI - E... 6.- OSTIRALA - E...

Word search grid containing letters A through Z arranged in a 13x13 grid.

Gurutzegrama

Complex crossword puzzle grid with various clues in Basque and English, including 'Ahalguztidan', 'Eguzki', 'Eraso', '5 pezeta', 'Halere', etc.



**BERGARA**



**Apirilak 12**

**ANTZEZLANA**

“Henry Bengoa inventarium” antzezlan. Novedades aretoan gaueko 10,30etan.

**Apirilak 20 zapatua**

**MUNDU MAILAKO TXIRRINDULARI TXAPELKETAREN SAILKAPEN IRTEERA**

Jubenil mailakoa izango da froga eta eguerdiko ordu 2etan irtengo du Seminarioko patioetik.

**OÑATI**



**Apirilak 13**

**ANTZERKIA**

Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian **TRAPU ZAHARRA** antzerki taldeak “Gato encerrado” antzeztuko du.

**Apirilak 18 eguena**

**HITZALDIA**

“GINEKOLOGIA MODERNOA” gaiaren inguruko hitzaldia. Arratsaldeko 7retan Santa Ana antzokian. Hizlariak: F. Cristobal, A. Estonba, M. Gomez, D. Murgiondo, A. Otalora, M. J. Ruiz.

**ARRASATE**



**Apirilak 18**

**ZINEA**

“EXTASIS” filmea Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

**Apirilak 20 zapatua**

**MUSIKA**

Arrasate Musikalek antolatuta **ZARZUELA: “Agua, azucarrillos y aguardiente”** Amaia Antzokian gaueko 10etan.

**Apirilak 15etik 21era**

**ERAKUSKETA**

**ANIMALIEN BABESAREN ALDEKO ERAKUSKETA.** Monterron kultur etxean.

**Apirilak 22tik 25era**

**HITZALDIAK**

**ELIKADURA, OSASUNA, LORAZAINTZA,...** Eroskiko kontsumitzaileen komiteak antolatuta. Monterron kultur etxean arratsaldeko 4etatik 6etara bitartean.

**Apirilak 25 eguena**

**ZINEA**

“¿HOLA, ESTAS SOLA?” filmea Amaia Antzokian gaueko 10etan.

**ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.**

**“ARINSA”**

Basabe Poligonoa “EO-10”  
Tfnoa: 79 62 80  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69


**MEMESA S.L.**

**Industriaren alde**  
Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan  
**MANTEKA ANAIK**

*Okindegia - Gozategia  
Panaderia - Pasteleria*



*Aretxabaleta*  
Militarte, 1 - Tfno. 77 00 81  
*Aretxabaleta*  
*Obrador Propio*

**MENDIOLA  
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

**Astelehenetan itxita**  
Tfnoa: 71 43 45  
**ESKORIATZA**





**Apirilak 4 eguna**

ZINEA

**DOS TONTOS MUY TONTOS** filmea  
Zaraia zineman gaueko 10,15ean.

**Apirilaren 4tik 8ra**

ZARAIA MENDI TALDEAK IRTEERA

ZARAIA M.T.ak SIERRA HANDIARA  
irteera egingo du datozen apirilaren  
4tik 8ra bitartean.

MURRUKIXO M. ELKARTEAK IRTEERA

MURRUKIXO M. E.ak Katalunya alde-  
ko Pirineoetara irteera antolatu du.

**Apirilak 5 eguakotxa**

ZINEA

**DOS TONTOS MUY TONTOS** filmea  
Zaraia zineman arratsaldeko  
7,30ean eta gaueko 10,15ean.

**Apirilak 6 zapatua**

ZINEA

**TWO MUCH** filmea Zaraia zineman  
arratsaldeko 7,30ean eta gaueko  
10,15ean.

**Apirilak 7 domeka**

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Otxandiano-  
Urkiola-Legutiano-Landa-  
Aretxabaleta. Guztira 72 Km.

ZINEA

**TWO MUCH** filmea Zaraia zineman  
arratsaldeko 7,30etan eta gaueko  
10,15ean. Arratsaldeko 5ean  
umeendako **DOS TONTOS MUY  
TONTOS.**

**Apirilak 8 astelehena**

ZINEA

**TWO MUCH** filmea Zaraia zineman  
arratsaldeko 7,30ean eta gaueko  
10,15ean.

**Apirilak 11, 12, 13**

3 HAUNDIAK 3 EGUNETAN

Izen ematea apirilaren 6rarte  
bitartean Loramendiko lokalean.

**Apirilak 11, 12, 13, 14**

ARABAR ERRIOXARA BIZIKLETA  
IRTEERA

**Apirilak 12 eguakotxa**

ZINEA

**SHOW GIRLS** filmea Zaraia zineman  
gaueko 10,15ean.

**Apirilak 13 zapatua**

ZINEA

**SHOW GIRLS** filmea Zaraia zineman  
arratsaldeko 7,30ean eta gaueko  
10,15ean.

**Apirilak 14 domeka**

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Ozaeta-  
Heredia-Agurain-Heredia-Landa-  
Aretxabaleta. Guztira 79 Km.

ZINEA

**SHOW GIRLS** filmea Zaraia zineman  
arratsaldeko 7,30ean eta gaueko  
10,15ean.

**Apirilak 15 astelehena**

ZINEA

**SHOW GIRLS** filmea Zaraia zineman  
gaueko 10,15ean.

**Apirilak 18 eguna**

ELKARRIREN TAILER BARRIAREN  
AURKEZPEN EKITALDIA

Elkarriren tailer barriaren aurkezpen  
ekitaldia egingo da. Udaletxeko  
ganbaran izango da arratsaldeko  
7retan. Hizlaria: **Jonan Fernandez.**



**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
**ARETXABALETAKO**

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa, ez begiak itxi.



Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi.



centro  
hogar  
MUEBLES

**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragonesa**

Sartzen dena:  
zeuk behar dituzun altzariak.

**ARRASATEKO BARIANTEAN**